

Euskara ikasi dutenen testigantza

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Sekuentzia honetan euskara ikasle izan direnen testigantzak ezagutzeko aukera izango dugu. zenbait euskara-ikasleren testigantza labur adibide hartuta, sekuentziaren amaieran norberak euskara ikasten izandako esperientzia eta aurrerantzean dituen asmoak idatziz kontatuko ditu.



1- Hiromi Yoshida: euskarak liluratutako japoniarra

Hiromi Yoshida euskara-irakaslea da Japonian. Duela hainbat urte euskararekin erabat maitemindu zen eta handik aurrera, euskara ikasteaz gain euskararen inguruko ikerketa egiten aritu zen. Elkarrizketan, Hiromik euskara ikasten nola hasi zen kontatuko digu, eta baita, Japoniako ekonomiaren eta politikaren egoera nola ikusten dituen ere. Elkarrizketan ageri da euskara jatorrean hitz egitea ez dela misterioa Hiromirentzat.

Entzun ezazu arretaz elkarrizketa, eta ondoren zure ulermena proban jarriko duzu. Erantzun galdera hauei hiru aukeretatik egokiena hautatuz.

1. Hiromi lehen aldiz euskarara hurbildu zenean...

- euskara ikasteko gogo handia zuen.
- ingeles filolologia ikasten ari zen unibertsitatean.
- ingelesa-klaseak ematen ari zen unibertsitatean.

2. Nolakoa zen Hiromiren lehen euskara-irakaslea?

- Ez oso ona, baina hitz egiten trebea zen.
- Irakasle oso ona eta trebea zen.
- Irakasle interesgarria eta ikasleekin ondo konpontzen zena.



3. Hiromik eskuartean duen hurrengo proiektua honakoa da:

- Bere lagun batekin euskararen historiari buruzko DVD bat, dokumentala, egitea.
- Euskara jendea izeneko liburu potolo samarra idaztea.
- Euskarari buruz 8 tomo dituen liburu potoloa idaztea.

4. Zer dio Hiromik Japoniako ekonomiaren egoerari buruz?

- Potentzia handia denez krisiak ez diola horrenbeste eragin Japoniari.
- Japoniako ekonomia Euskal Herrikoa baino osasuntsuago dagoela.
- Azken 20 urteotan Japonian ere ekonomia nahiko baxu edo behetik ibili dela.

5. Politikari dagokionez, Japonian...

- garai bateko gobernuek zenbait kontu ezkutatu egiten zituzten, baina orain ez.
- lehen ustelkeria handia zegoen, baina orain pixkanaka gutxitzen ari da.
- gaur egun, lehen zegoen ustelkeriak jarraitzen du.

6. Duela urtebete Hiromik Rakugo izeneko ahozko tradizioa ekarri zuen Euskal Herrira. Zer da Rakugo?

- Umorea lantzeko Japonian bakarrik kontatzen diren ipuinak dira.
- Japoniako ahozko tradizio handi bat da; gehienbat helduei zuzentzen diren ipuinak dira eta barre egitekoak.
- Japonian tradizio handia duten ipuinak dira, barre egiteko teknikak eta trukoak lantzen dituenak.

2- Denbora kontua da

Hurrengo ariketan egin behar duzunerako (euskara ikasten izan duzun esperientzia kontatzea) ondo etorriko zaizu denborazko esaldiak birpasatzea. Molda itzazu esaldiok beste era batera. Horretarako egokitu esaldia parentesi arteko egitura erabiliz. Erreparatu azpimarratuak dituzun esaldiaren atalei, ariketa ondo egiteko horiek ordezkatu egin behar dituzu-eta.

Ikusi adibidea:

Ariketa: Japonian mutil arrasatear bat ezagutu zuen. **Orduan** sortu zitzaion euskara ikasteko gogoia (..takoan)

Erantzuna: Japonian mutil arrasatear bat ezagututakoan sortu zitzaion euskara ikasteko gogoia.

1. Aretxabaletako familia horretan euskara praktikatzen nuen. **Horrekin batera** diru pixka bat irabazten nuen. (-n bitartean)

2. Maizpide euskaltegian lagun euskaldunak egin nituen. **Eta berehala** hasi nintzen euskaraz hitz egiten. (..bezain laster)

3. **Urte horretan** hasi nintzen nire lagunekin euskaraz hitz egiten. **Eta orduan** ohartu nintzen euskara ez dela hain zaila. (...enean)

4. Maite nuen mutila euskaraz hitz egiten ikusi **eta une berean** ohartu nintzen euskara entzutea zein polita den. (-t(z)ean)

5. **Laster** Ondarrura joango naiz bizitzera, **eta orduan** hasiko naiz euskara ikasten buru-belarri. (-takoan)

6. Maizpide barnetegian egunero euskaraz hitz egiten nuen. Baina, barnetegia utzi **eta gero** ez dut euskara praktikatu. (-enetik)



3- Euskara ikasten izan nuen esperientzia

Ikusten denez Hiromi euskara ikasten hasi eta erabat murgildu zen euskararen munduan. Eta zuk nola bizi izan duzu euskara ikastearen esperientzia? Zure euskaltegiko blog-orrirako zure esperientzia idaztea eskatu dizute, gero esperientzia horien berri elkarri emateko. Behean dituzu bildu dituzten zenbait testigantza, adibide modura.

KONTAKETARAKO GIDOIA

- Noiz hasi zinen euskara ikasten eta zergatik?
- Euskara ikasten hasi zinenetik zer da lortu duzuna edota lortu nahi zenukeena?
- Euskara-ikaslearen esperientzia horretan zer da gehien gustatzen zaizuna?
- Euskara ikastea merezi izan dizu? Zein dira horren arrazoiak?
- Eta hemendik aurrera zer? Zure euskara-maila hobetzen jarraitzeko asmorik bai?



ADIBIDE BATZUK

Oigor Azkuna Bilbao (Zornotza, Bizkaia): "Nik beti jakin dut euskaraz hitz egiten, txiki-txikitatik egin dudalako. Hala ere, badira urte batzuk, nire lanarengatik, asko murriztu dudala euskaraz egitea. Hori dela eta, pasa den urtean, eta pixka bat amorratuta, AEKra etortzea erabaki nuen, galdutakoa berreskuratzea. Euskara ikasten nabilenetik, gustatzen zaidana da izaten ditudan solasaldiak klaseko eta kanpoko jendearekin. Horrek ikaragarri betetzen nau pertsona moduan. Nire ustez, merezi du ahalegin hau egiteak. Horregatik, euskara ikasten jarraitu nahi dut nire inguruko euskaldun zaharrekin komunikatzea lortu arte."

Itziar (Pasaia, Gipuzkoa): "Orain dela zortzi urte hasi nintzen ikasten euskaraz. Horietatik hiru urte egon nintzen ikasi gabe, semea izan nuelako. Hasieran lanak bultzatu ninduen ikastera, baina gaur egun nire semeagatik animatu naiz. Nire semea ikastolako haur gehienak bezala, D ereduan dabil eta gustatuko litzaidake berari laguntzea etxeko lanekin. Gehien gustatzen zaidana mintzapraktika taldeak dira. Zure maila daukan jendearekin hitz egiteak konfiantza handia ematen dizu. Perfilen bat ateratzea gustatuko litzaidake, eta ahaleginak mereziko duela espero dut. Niri euskara ikasteak jende gehiagorekin erlazionatzeko aukera eman dit. Gainera, ez da ahaztu behar euskara gure kultura dela."

Aitor (Andoain, Gipuzkoa): "Aurten Andoaingo euskaltegian apuntatu naiz, betidanik nire euskara hobetzeko eta erabiltzeko gogoia izan dut eta. Gainera nire familia eta lan giroa euskalduna da, eta gure hizkuntza dela aipatu nahi dut. Niretzako euskara ikasteak ez du inolako esfortzurik suposatzen, euskaltegira oso gustura joaten naizelako. Eskerrak eman nahi dizkiet euskara ikasten laguntzen didaten guztiei, nire helburua euskaraz bizitzea baita". Horregatik, hemendik aurrera nire euskara-maila hobetzen eta aberasten jarraitzeko asmoa daukat.

Elodie (Durango, Bizkaia): "Ni duela lau hasi nintzen euskara ikasteko esperientzia honekin. Nire mutil-lagunagatik hasi nintzen euskara ikasten. Bera Durangokoa da, eta bere familia eta lagunak euskaldunak dira. Azken batean, integratzeko modu bat izan da. Orain frantseseko irakaslea izan nahi dut, eta beharrezkoa da titulua lortzea. Gehien gustatzen zaidana jendea ezagutzea da. Gainera, hainbat gauza ikasi ditut Euskal Herriko istorioari buruz, eta nire ustez oso garrantzitsua da. Hizkuntza ez da bakarrik gramatika, baizik eta kultura ezagutzea eta, batez ere, hizkuntza erabiltzea".

4- Zatoz barnetegira!

Barnetegia aukera ezin hobea da inguru euskaldun batean murgilduta hizkuntza praktikan jartzeko. IKAk ere udaro antolatzen ditu barnetegiak. Ezagutzen al dituzu? Ba al dakizu zein herritan egiten diren? Ezagutzen al duzu bertan ibilitako norbait? Erantzun ondorengo galderak aukera zuzena hautatuz eta erantzunak argitutakoan hobeto ezagutuko duzu.



1. Ba al dakizu zer herriri esaten dioten Euskal Herriko Venezia?

- a) Karrantza
- b) Lesaka
- c) Mundaka
- d) Zarautz

2. Zergatik esaten diote horrela?

- a) Herriko jaietan erabiltzen dituzten jantziak gondoleroenak bezalakoak direlako
- b) Turista aberats asko joaten direlako
- c) Zubi asko dituelako
- d) Bertako plaza nagusiak San Markos izena duelako

3. Irudi hauetatik zein da herri horretakoa?



4. Euskal Herriko zer lurraldetan dago?

- a) Nafarroan
- b) Bizkaian
- c) Gipuzkoan
- d) Araban

5. Zenbat biztanle ditu?

- a) 1-500
- b) 1.000-3.000
- c) 5.000-10.000
- d) 12.000tik gora

6. Zein da bertako jarduera ekonomiko nagusia?

- a) Industria
- b) Turismoa
- c) Nekazaritza
- d) Arrantza

7. Zer herri dago bertatik hurbilago?

- a) Tuteran
- b) Tolosa
- c) Hondarribia
- d) Bera

8. Itsasotik zenbat kilometrotara dago?

- a) 0-5 km
- b) 10-20 km
- c) 40-75 km
- d) 80-120 km

9. ETBko zer aurkezle da bertakoa?

- a) Ana Urrutia
- b) Africa Baeta
- c) Felix Linares
- d) Julian Iantzi



10. Zein dira bertako jai nagusiak?

- a) Saninazioak
- b) Sanprudentzioak
- c) Sanferminak
- d) Madalenak

11. Esaldi hauetako bat ez da egia:

- a) Munduko patata-tortillarik onena egiten dute herriko taberna batean.
- b) *Zubigaineko dantzan* dantzari bat ibaira eroriz gero, urtebetez erbesteratzen dute.
- c) Izokinak herriguneraino iristen ziren.
- d) Orson Wellsek pelikula bat filmatu zuen herrian.
- e) Esku-pilotan jolasteko, sakea kale batetik plazara egin behar zuten pilota etxean gaineratik pasatuz.
- f) Audrey Hepburnek eta John Wayneek bertako etxe batean egin zuten lo.



Orain, IKAk Lesakan antolatzen duen BARNETEGIAri buruzko bideo-pasarte bat ikusiko duzu. Bideoa ikusi aurretik, markatu adierazpen hauetatik zein diren egia:

	EGIA	GEZ.
IKAren barnetegian, mintzamina bakarrik lantzen da.		
Ez da serio lan egiten.		
Dudak argitzen dira, eta neguan ikasitakoa finkatzen da.		
Ingurunea euskalduna da.		
Ez dira azterketak prestatzen.		
Kirola egin daiteke.		
Gaizki jaten da.		
24 orduz euskaraz egiten duzu.		
Irakasleek egun osoa ematen dute ikasleekin.		
Herria eta inguruneak ez dira oso erakargarriak.		
Azpimaila bat lortu daiteke.		
Ez dago garbiketa-zerbitzurik.		
Lagun berriak egiten dira.		
Beti ligatzen da.		
Idazmena lantzen da.		
Txangoak eta tailerrak egiten dira.		
Ez da parranda-girorik egoten.		

Orain, kontatu idatziz zure esperientzia ondoko galderak oinarri hartuta:

- Inoiz egon al zara barnetegi (edo udaleku) batean edo inoiz pentsatu duzu joatea?
- Bideoan ikusitakoa bat al dator zure esperientziarekin edo aurreikusita zeneukanarekin?
- Barnetegi batean ibili bazara, azaldu zure esperientzia ikaskideei: zein barnetegi zen, non izan zen, noiz joan zinen, zenbat egun, zer egiten zenuten, asko ikasi ote zenuen... Ondo pasatu zenuen? Itzultzeko asmorik bai?...

1- Hiromi Yoshida: euskarak liluratutako japoniarra

1. Hiromi lehen aldiz euskarara hurbildu zenean... **(ingeles filologia ikasten ari zen unibertsitatean.)**
2. Nolako zen Hiromiren lehen euskara-irakaslea? **(Irakasle oso ona eta trebea zen.)**
3. Hiromik eskuartean duen hurrengo proiektua honakoa da: **(Bere lagun batekin euskararen historiari buruzko DVD bat, dokumentala, egitea.)**
4. Zer dio Hiromik Japoniako ekonomiaren egoerari buruz? **(Azken 20 urteotan Japonian ere ekonomia nahiko baxu edo behetik ibili dela.)**
5. Politikari dagokionez, Japonian... **(gaur egun, lehen zegoen ustelkeriak jarraitzen du.)**
6. Duela urtebete Hiromik Rakugo izeneko ahozko tradizioa ekarri zuen Euskal Herrira. Zer da Rakugo? **(Japoniako ahozko tradizio handi bat da; gehienbat helduei zuzentzen diren ipuinak dira eta barre egitekoak.)**

2- Denbora kontua da

- 1- Aretxabaletako familia horretan euskara praktikatzen nuen bitartean diru pixka bat irabazten nuen.
- 2- Maizpide euskaltegian lagun euskaldunak egin bezain laster hasi nintzen euskaraz hitz egiten.
- 3- Nire lagunekin euskaraz hitz egiten hasi nintzenean ohartu nintzen euskara ez dela hain zaila.
- 4- Maite nuen mutila euskaraz hitz egiten ikustean ohartu nintzen euskara entzutea zein polita den.
- 5- Ondarrura bizitzera joandakoan hasiko naiz euskara ikasten buru-belarri.
- 6- Maizpide barnetegia egunero euskaraz hitz egiten nuen, baina, barnetegia utzi nuenetik ez dut euskara praktikatu.

4- Zatoz barnetegira!

- 1- Ba al dakizu zer herriri esaten dioten Euskal Herriko Venezia? b) Lesaka
- 2- Zergatik esaten diote horrela? c) Zubi asko dituelako
- 3- Irudi hauetatik zein da herri horretakoa? D
- 4- Euskal Herriko zer lurraldetan dago? e) Nafarroan
- 5- Zenbat biztanle ditu? e) 1.000-3.000
- 6- Zein da bertako jarduera ekonomiko nagusia? e) Industria
- 7- Zer herri dago bertatik hurbilago? d) Bera
- 8- Itsasotik zenbat kilometrotara dago? e) 10km-20km
- 9- ETBko zer aurkezle da bertakoa? d) Julian lantzi
- 10- Zein dira bertako jai nagusiak? c) Sanferminak
- 11- Esaldi hauetako bat ez da egia: b) Zubigaineko dantzan, dantzari bat ibaira eroriz gero, urtebetez erbesteratzen dute (orain arte ez omen da inor erori). Beste guztiak, harrigarriak badira ere, egia dira.

	EGIA	GEZ.
IKAren barnetegian, mintzamina bakarrik lantzen da.		X
Ez da serio lan egiten.		X
Dudak argitzen dira, eta neguan ikasitakoa finkatzen da.	X	
Ingurunea euskalduna da.	X	
Ez dira azterketak prestatzen.	X	
Kirola egin daiteke.	X	
Gaizki jaten da.		X
24 orduz euskaraz egiten duzu.	X	
Irakasleek egun osoa ematen dute ikasleekin.		X
Herria eta inguruneak ez dira oso erakargarriak.		X
Azpimaila bat lortu daiteke.	X	
Ez dago garbiketa-zerbitzurik.		X
Lagun berriak egiten dira.	X	
Beti ligatzen da.		X
Idazmena lantzen da.	X	
Txangoak eta tailerrak egiten dira.	X	
Ez da parranda-girorik egoten.		X